

15 urte kultura zientifikoa espazio publikoan sustatzen eta ikusgarri egiten

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak atzo arratsaldean ospakizun ekitaldi berezi bat antolatu zuen Bizkaia Aretoa-EHUn, erakundearen ibilbidean funtsezkoak izan diren kide askorekin batera bere hamabosgarren urteurrena ospatzeko.

Ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Iker Badiola EHUko Kultura Zientifikoko Katedrako zuzendariak; Juan Ignacio Pérez Iglesias Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak; eta Joserramon Bengoetxea EHUko errektoreak, beste agintari batzuekin batera.

Bilbon, 2025eko urriaren 18an. [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) atzo bere 15. urteurrena ospatu zuen Bizkaia Aretoa-EHUn egindako ospakizun ekitaldi berezi batean, urte hauetan zehar bere jarduera dibulгатzailearen zati handi bat hartu duen espazio esanguratsuan. Esker-adierazpen gisa antolatutako topaketa honek ehun lagun inguru bildu zituen, tartean, erakundeetako ordezkariak eta Katedraren ibilbidean zehar giltzarri izan diren kolaboratzaileak, kideak eta laguntzaileak, besteak beste.

Ekitaldia **Kike Amonarriz** soziolinguista eta umoregileak eta **Reyes Prados** kazetariak aurkeztu zuten. Hamabost urte hauetan lortutako mugarri garrantzitsuetako batzuk gogora ekartzeaz gain, gaur egungo gizartean zientziaren eta ezagutzaren dibulgazio sozialak duen zereginaren inguruko gogoeta ere bateratu zuen topaketak. Bi aurkezleek erritmoa, gertutasuna eta umorea erantsi zizkioten Katedraren hastapenetatik gaur egunera arte bere ibilbidea aberastu eta arrastoa utzi duten ahots esanguratsuen elkarguneari.

Hastapenak eta elkarrekin egindako bidea gogoratuz

Bizkaia Aretoa-EHUko oholtzan hitza hartzen lehenengoa **Miren Josune Ariztondo** izan zen, 2008 eta 2015 artean Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatu izandakoa. Hark gogorarazi zuen Katedra 2010ean sortzea ahalbidetu zuen hasierako bultzada, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta EHUn arteko hitzarmen bati esker. Ondoren, **Gotzone Barandikaren** txanda izan zen; EHUko Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak Katedrak abian jarritako ekimenen garrantzia eta euskarazko dibulgazioarekin zein emakume zientzialarien ikusgarritasunarekin duen konpromisoa azpimarratu zituen.

EHUko irakaslea den **Marta Machok**, [Mujeres con Ciencia](#) blogaren editoreak, 2014an sortutako proiektu digital honen bilakaera ekarri zuen gogora. Genero-ikuspegidun dibulgazioaren erreferente bihurtu da ordutik, eta 2024an Zirgari Saria – Berdintasunaren aldeko Proiektua jaso zuen. Halaber, **Igor Campillok**, Euskampus Fundazioko zuzendariak, unibertsitatearen eta gizarte-ingurunearen arteko lankidetzaren garrantzia izan zuen hizpide, transferentzia-proiektuak bultzatzeko ezinbesteko zutabe gisa. Bestalde, **Ione Aranak**, Bizkaia Aretoa-EHUko zuzendariak, Katedrak eraikinaren jarduera kulturalaren dinamizazioan duen ekarpena nabarmendu zuen.

Gero, **Eva Caballero** kazetariak, Radio Euskadiko *La mecánica del caracol* saioaren zuzendariak, komunikabideek kultura zientifikoa zabaltzeko eta desinformazioari aurre egiteko duten eginkizuna balioan jarri zuen.

Hamabost urte dibulgazioa, lankidetzak eta etorkizuna sustatzen

Iker Badiolak, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrako zuzendariak, eskerrak eman zizkien Katedraren ibilbidea posible egin duten pertsona eta erakunde guztiei. Era berean, esker hitzak izan zituen **Juan Ignacio Pérez Iglesiasentzat**, Katedrako lehen zuzendaria izan zenarentzat eta gaur egun Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua denarentzat. Ildo horretan, Badiolak azpimarratu zuen aurreko zuzendariaren “ondare handia” eta kultura zientifikoa demokraziaren zutabe gisa ikusarazteko egindako lana. Gainera, adierazi zuen etapa berri honetan ondare hori sendotzea, begirada zabaltzea eta urrats bat gehiago ematea dituela helburu, “gizartearen esparru gero eta zabalagoetara iristeko eta zientziaren komunikazio inklusiboagoa sustatzeko”.

Juan Ignacio Pérez Iglesiasen Katedraren jatorria ekarri zuen gogora eta pozik agertu zen erakundeak hamabost urte hauetan izan duen bilakaerarekin. Amaitzeko, EHUko errektorea den **Joserramon Bengoetxeak** hartu zuen hitza eta Katedrak unibertsitatearen konpromiso sozialari egindako ekarpena eta komunitate zientifikoaren eta gizartearen arteko zubi-lana goretsi zituen.

Era berean, ekitaldian izan ziren **Ainara Basurko**, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko diputatua, eta **Eider Inunciaga**, Bilboko Udaleko Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko arloko zinegotzi ordezkaria.

Katedrarentzat funtsezkoak izan diren beste zenbait pertsona ere bertaratu ziren ekitaldira: **Iñaki Gorizelaia**, EHUko errektorea 2008 eta 2016 bitartean; **Pedro Miguel Etxenike**, Donostia International Physics Center (DIPC) erakundeko presidentea; **José Antonio Lozano**, Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) zentroko zuzendaria; eta **Ana Zubiaga**, Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Euskal Akademiako presidentea.



Jardunaldia amaitzeko, Bizkaia Aretoa-EHUko terrazan elkartze bat egin zen oroitzapenak partekatzeko eta azken hamabost urteetan zientzia herritarrengana gerturatzeko egin den lan kolektiboa ospatzeko.

15 años impulsando y visibilizando la cultura científica en el espacio público

La Cátedra de Cultura Científica de la EHU organizó ayer por la tarde un acto conmemorativo en Bizkaia Aretoa-EHU para celebrar su decimoquinto aniversario junto a una amplia representación de figuras clave en la historia de la institución

El acto contó con la participación de Iker Badiola, director de la Cátedra Cultura Científica de la EHU; Juan Ignacio Pérez Iglesias, consejero de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco; y Joxerramon Bengoetxea, rector de la EHU, entre otras autoridades

Bilbao, 18 de octubre de 2025. [La Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) celebró ayer su 15º aniversario con un acto conmemorativo en el Bizkaia Aretoa – EHU de Bilbao, espacio neurálgico que ha acogido buena parte de su actividad divulgativa durante estos años. El encuentro, concebido como un gesto de agradecimiento, reunió a cerca de un centenar de personas entre representantes institucionales, personas colaboradoras y figuras clave que han impulsado y acompañado a la institución a lo largo de su trayectoria.

El evento, presentado por el sociolingüista y humorista **Kike Amonarriz** y la periodista **Reyes Prados**, combinó el repaso a algunos de los hitos alcanzados en estos quince años con la reflexión sobre el papel de la difusión social de la ciencia y el conocimiento en la sociedad actual. Ambos conductores aportaron ritmo, cercanía y humor a un evento en el que sucedieron algunas de las voces más representativas que han acompañado a la Cátedra de Cultura Científica de la EHU desde sus orígenes hasta la actualidad.

Una mirada a los inicios y a los logros compartidos

La primera en subir al escenario del Bizkaia Aretoa-EHU fue **Miren Josune Ariztondo**, diputada foral de Cultura entre 2008 y 2015, quien recordó el impulso inicial que permitió la creación de la Cátedra en 2010 gracias a un acuerdo entre la Diputación Foral de Bizkaia y la EHU. Tras ella intervino **Gotzone Barandika**, vicerrectora de Transferencia e Internacionalización de la EHU, que destacó la relevancia de las iniciativas puestas en marcha por la Cátedra y su compromiso con la divulgación en euskera y la visibilización de las mujeres científicas.

La profesora de la EHU, **Marta Macho**, editora del blog [Mujeres con Ciencia](#), recordó la evolución de este proyecto digital creado en 2014, convertido en referente de divulgación con perspectiva de género, y galardonado con el Proyecto por la Igualdad Zirgari Saria en 2024. También intervinieron **Igor Campillo**, director de Euskampus Fundazioa, quien destacó la

importancia de la colaboración entre la universidad y su entorno social para impulsar proyectos de transferencia, y **Ione Arana**, directora del Bizkaia Aretoa-EHU, que subrayó el papel de la Cátedra en la dinamización cultural del edificio.

Después, la periodista **Eva Caballero**, directora del programa *La mecánica del caracol* de Radio Euskadi, puso el acento en la importancia de los medios de comunicación para socializar la cultura científica y contrarrestar la desinformación.

Quince años de divulgación, colaboración y futuro

Durante su intervención, el director de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, **Iker Badiola**, agradeció la implicación de todas las personas e instituciones que han contribuido a hacer posible este recorrido y dedicó unas palabras especiales a **Juan Ignacio Pérez Iglesias**, primer director de la Cátedra y actual consejero de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco. En este sentido, Badiola puso en valor el “gran legado” de su antecesor al frente de la institución y su contribución a la visibilización de la cultura científica como pilar democrático. Añadió además, que en esta nueva etapa busca fortalecer este legado, ampliar la mirada y dar un paso más “para llegar a un público cada vez más amplio y contribuir a una comunicación más inclusiva de la ciencia”.

Por su parte, **Juan Ignacio Pérez Iglesias** recordó los orígenes de la Cátedra y expresó su satisfacción por la proyección alcanzada en estos quince años. Finalmente, el rector de la EHU, **Joxerramon Bengoetxea**, clausuró el acto destacando la aportación de la Cátedra al compromiso social de la EHU y su papel como puente entre la comunidad científica y la sociedad.

Asimismo, el acto contó con la presencia de la diputada de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, **Ainara Basurko**, y de **Eider Inunciaga**, concejala delegada de Euskera, Atención y Participación Ciudadana, Agenda 2030 e Internacional en el Ayuntamiento de Bilbao.

Entre otras figuras clave para la Cátedra, también acudieron al evento **Iñaki Goirizelaia**, rector de la EHU entre 2008 y 2016; **Pedro Miguel Etxenike**, presidente del Donostia International Physics Center (DIPC); **José Antonio Lozano**, director del Basque Center for Applied Mathematics (BCAM), y **Ana Zubiaga Elordieta**, presidenta de Jakiunde, la Academia Vasca de Ciencias, Artes y Letras.

El evento concluyó con un encuentro en la terraza del Bizkaia Aretoa-EHU que sirvió para compartir recuerdos y celebrar una trayectoria colectiva que, durante quince años, ha contribuido a acercar la ciencia a la sociedad y a visibilizarla en el espacio público.